

Eraikuntzako Produktuen Europako Erregelamendu berriari buruzko jardunaldia antolatu du TECNALIAK

- *Martxoaren 20an egingo da, 10:00etatik 13:15era, TECNALIAren Derioko instalazioetan (700 eraikina), eta laguntzaile ditu Industria eta Turismo Ministerioa, Ebaluazio Teknikoko Europako Erakundea (EOTA), BUILD:inn klusterra, Certinalia eta Eusko Jaurlaritza*

Bilbon, 2025eko martxoaren 12an. TECNALIA ikerketako eta garapen teknologikoko zentroak Eraikuntzako Produktuen Europako Erregelamendu berriari buruzko jardunaldi bat antolatu du ostegun honetarako (martxoaren 20an, 10:00etatik 13:15era) Derion dituen instalazioetan (Astondo bidea, 700 eraikina); Industria eta Turismo Ministerioa, Ebaluazio Teknikoko Europako Erakundea (EOTA), BUILD:inn klusterra, Certinalia eta Eusko Jaurlaritza dira laguntzaileak.

2024ko abenduaren 18an argitaratu zen Eraikuntza Produktuen Europako Erregelamendu berria (RPC 2024/3110), 2011tik indarrean zegoen erregelamendua ordeztu duena. 2025eko urtarrilaren 7an jarri zen indarrean, baina zenbait betekizun pixkanaka sartzen joango dira 12 hilabete geroagotik aurrera.


Ehun bat pertsonak hartuko dute parte jardunaldian, eta CE markatzea Eraikuntza Produktuen Europako Erregelamenduaren arabera kudeatzen ikasteko balioko du; izan ere, erregelamendu horren inplikazioak eta funtsezko eskakizunak azalduko zaizkie parte-hartzaileei. TECNALIA erreferentea da eraikuntzako laborategi gisa eraikuntzako produktu berritzaileen ebaluazioaren testuinguruan.

Hona nori zuzentzen zaion ekitaldia: eraikuntzako material, produktu eta sistemen fabrikatzaileak, eraikuntzako material, produktu eta sistemen banatzaileak, zuzendari eta arduradun teknikoak, garapen, erosketak eta kalitate-segurtatzeko sailak, eraikitzaile eta ingeniariak eta preskriptoreak.

Berrikuntza esanguratsuak ditu erregelamendu berriak:

Normalizazio-prozesua Acquisaren prozesua ezarri da, halako moldez non estatu kideen premiei erantzungo baitiete sortzen diren arau harmonizatuek. Eremu Harmonizatua ere ezarri da, zeinak EBren arau-esparru bat mugatzen baitu, RPCaren arabera produktuak estatu kide guztietan merkaturatu ahal izatea bermatzeko, ziurtagiri gehigarrien premiarik gabe.

Jasangarritasuna eta ekonomia zirkularra: Eraikuntza-produktuak berrerabiltzea eta berregokitzea sustatzen da; hala, jardunbide jasangarriagoak bultzatzen dira eta ingurumen-inpaktua murrizten.



Digitalizazioa: Produktuaren Pasaporte Digitala ezarri da, produktuen ezaugarriei, prestazioei eta adostasunari buruzko informazio zehatzerako irispidea errazteko.

Eraikuntza Produktuen Europako Erregelamendu berriak —(EB) 2024/3110— betebeharrak espezifikoak xedatzen ditu eraikuntza-produktuen fabrikatzaile eta banatzaileentzat.

Fabrikatzaileek bermatu behar dute beren produktuek betetzen dituztela espezifikazio tekniko harmonizatuak eta segurtasunaren eta jasangarritasunaren inguruko ezinbesteko eskakizunak; horretarako, beharrezkoa bada, erakunde jakinarazi bat sartu beharko da. Besteak beste, prestazioen eta baimenen aitortpen zehatz bat prestatu beharko dute eta CE marka jarri beharko dute produktuetan. Gainera, dokumentazio tekniko xehatua aurkeztea eta produktuaren trazabilitatea bermatzea exijitzen zaie.

Banatzaileei dagokienez, merkaturatutako produktuek CE markatzea dutela eta beharrezko dokumentazioarekin datozela egiaztatzeko erantzukizuna dute. Bermatu behar dute, halaber, biltegiak eta garraioak ez dutela arriskuan jarriko ezarritako eskakizunak betetzea produktuek.

Hala, eraikuntzako produktuak eskuratzean, ezinbestekoa da:

CE markatzea egiaztatzea: produktuak EBn merkaturatzeko eskakizunak betetzen dituela bermatzen du.

Prestazioen eta baimenen aitortpena aztertzea: Produktuaren ezaugarri eta prestazio aitortuei buruzko informazioa ematen du.

Jasangarritasuna ebaluatzea: Produktuaren ingurumen-inpaktua eta eraginkortasun energetikoa kontuan hartzea.

Trazabilitatea berrestea: Produktua jatorriraino jarraitu dakiogekela bermatzea, benetakoa eta kalitatezkoa dela bermatzeko

TECNALIAri buruz

TECNALIA Espainiako ikerketa aplikatuko eta garapen teknologikoko zentro handiena da, Europako erreferentzia eta Basque Research and Technology Alliance-ko kide. Enpresa eta erakundeekin elkarlanean aritzen da, lehiakortasuna eta pertsonen bizi-kalitatea hobetzeko eta hazkunde jasangarria lortzeko. Horretarako, 1.500 lagunetik gorako lantalde bat dauka, ikerketa teknologikoaren eta berrikuntzaren bidez mundu hobea eraikitzeko konpromisoa hartu duena. Horregatik, TECNALIAren ikerketak benetako eragina du gizartean, eta onurak sortzen ditu bizi-kalitatean eta aurrerabidean. Hauek ditu jarduera-eremu nagusiak: fabrikazio adimenduna, eraldaketa digitala, trantsizio energetikoa, mugikortasun jasangarria, osasuna eta elikadura, hiri-ekosistema eta ekonomia zirkularra.



European Research Survey ERSk osperei eta posizionamenduari buruz egindako azken azterketan (2022an egin da), TECNALIA lehen postuan ageri da I+G+Ban markak duen osperei dagokionez.

www.tecnalia.com/eu

Informazio gehiago:

Itziar Blanco (681 273 464)